

URRETXUKO BARAZKI ETA FRUTA

SARIKETA 2016

1.- BARAZKI ETA FRUTA

Partaideek norberak landutako barazki eta fruta aurkeztu beharko dituzte.

Sariketak bi atal berezi izango ditu:

- a) Barazkiak.
- b) Frutak.

2.- SARIKETAKO EPAIMAHAIA

Sariketako epaimahaia Urretxuko alkateak izendatuko du zinegotzi arduradunaren proposamenaren arabera, eta horretarako kontuan hartuko da gai honetan adituak diren erakunde publiko nahiz pribatu edo jakitunen iritzia.

Epaimahaikideak gutxienez hiru teknikari izango dira, eta gehienez bost, guztiak gai honetan jakitunak. Teknikari horietako bat Epaimahaiko idazkaria izango da, eta erabakia agiri batean jasoko du. Erabaki agiriak udaletxeko Idazkaritzan egon beharko du abenduaren 13ko goizeko 11,30ak baino lehen.

Udalek izendatuko dituzten administrazio langileen laguntza jasoko du Epaimahaiak.

Aldez aurretik jakingo da zein diren epaimahaikideak.

Epaimahaiaren erabakia aldaezina izango da, eta horretarako honako irizpideak jarraituko ditu:

3.- KONTUAN HARTUKO DIREN EZAUGARRIAK

- a) Kalitatea (ekologikoa izatea, tamaina, itxura, kolorea, heldutasun puntua...).
- b) Aurkezteko era.
- d) Aniztasuna.

4.-SARIKETAKO BALDINTZAK

Urretxuko Santa Lutziko urteroko sariketan parte hartzeko :

1. **Nekazaritzako baserri erregistroaren agiria aurkeztea.**
2. **Barazkiak:** gutxienez 8 barazki mota aurkeztu beharko dira: mota bakoitzeko bi kilo gutxienez. Aleka saltzen diren produktuak, gutxienez dozena bat, mota bakoitzeko.
3. **Fruta:** gutxienez 8 fruta mota aurkeztu beharko dira eta gutxienez 2 kilo mota bakoitzeko.

Interesatuak aldez aurretik izena eman beharko du Urretxuko kultur etxean, azaroaren 8tik 25era eguerdiko ordu biak baino lehen; 943-038088 telefonora deituz ere egin daiteke.

Izena ematerakoan, honako datuok ekarri beharko dira:

- Lehiakidearen izena eta 2 abizenak, helbidea eta N.A.N zenbakia.
- Nekazaritzako baserri erregistroaren agiria.
- Zein sariketan parte hartu nahi duen adierazi.
- Kontu zenbakia (20 digitu)

Postuak goizeko 9etarako jarri beharko dira, eta ordu horretarako jarri gabekorik ez da onartuko. Bakoitza non jarri Udalak erabakiko du.

5.- SARIAK

BARAZKI ETA FRUTA SARIKETA

**Sari kategoriara iristen direnek (gehienez 4)
250 euroko saria jasoko dute.**

**Ezkio-Itsaso, Gabiria, Legazpi, Ormaiztegi, Urretxu eta Zumarragako sarituei
100euroko gehigarria emango zaie.**

Saria jasotzen dutenek garaikurra ere izango dute.

Sariketako baldintzak betetzen dituztenek 100 euroko dieta jasoko dute, baina kontuan hartu behar da dieta bakarria emango dela baserriko (beraiek emandako kontu zenbakian sartuko zaie dirua).

Sariak Kalebarren-Areizaga plazan banatuko dira, Santa Lutzi egunean bertan, eguerdiko 13:30ean hasiko den ekitaldian.

Lehiakide sariduna sari banaketan ageri ez bada, sariari uko egin diola ulertuko da.

6.- OHARRAK

1.- Epaimahaiak komenigarria ikusten badu, produktuen benetakotasuna ziurtatzeko bisita bat egingo du.

2.- Sariketan parte hartzeak berekin dakar jarritako baldintzak onartzea.

3.- Parte hartzaile guztiei, bertako produktuak saltzeko aukera eskainiko zaie.